

2003 LANPOLTSAK

A2 Informatika

A AZTERKETA EREDUA

2003/03/21

1.- ZENBAIT FITXATEGIRI EZ ZAIE IZAERA PERTSONALEKO XEHETASUNAK BABESTEARI BURUZKO LEGE ORGANIKOA APLIKATUKO BALDIN ETA ONDOKO MOTAKO DATUAK BADAUZKATE:

- a) Administrazio- edo Zigor-urratzeen buruketari buruzko datuak.
- b) Etxeko jardueretarako soilik erabiltzen diren datuak.
- c) Ideologi, erlijio edo sinismenei buruzko datuak.
- d) Sexu-osasun edo sexu-bizitzari buruzko datuak.

2.- SISTEMA ERAGILEAK ORRI-MARKOEN TAULA BANA DAUKA

- a) Erabiltzaile bakoitzeko.
- b) Prozesu bakoitzeko.
- c) Fitxategi bakoitzeko.
- d) Orri-markoen taula bakarra da.

3.- ZERI DEITZEN ZAIO UNIXE-KO "SHELL"-A?

- a) Erabiltzailea identifikatzeko ardura duen prozesuari.
- b) Terminalarekiko adi dagoen prozesuari.
- c) Komando-interpretari.
- d) Erabiltzaile bakoitzaren kontabilitate-sistemari (accounting).

4.- NOLA DEITZEN DIRA TCP/IP SAREAK LOTZEKO ERABILTZEN DIREN GAILUAK?

- a) Zubiak.
- b) Konmutadoreak.
- c) Pasabideak.
- d) Bideragailuak.

5.- OBJEKTUEI ORIENTATUTAKO PROGRAMAZIO BATEN EGITURA HIERARKIKO BATEAN...

- a) Objektu bat hiru mailatan egon daiteke: errokoan, tartekoetan eta terminaletan.
- b) Objektu bat bi mailatan egon daiteke: errokoan eta terminaletan.
- c) Objektu guztiak maila bakar batean daude.
- d) Objektuei orientazioan ez dago hierarkiarik.

6.- GAUR EGUN, TCP/IP KONEXIO BATEK ESKAIN DEZAKEN ZERBITZU-KALITATEA HONETAN DATZA:

- a) Gutxienez zenbat byte transmititzen duen segundoko (throughput).
- b) Datuak errorerik gabe eta ordena galdu gabe eramaten ditu.
- c) Atzerapen mugatuan.
- d) Atzerapen-aldaketa (jitter) mugatuan.

7.- BI ATAZEK "HASIERA-HASIERA" MOTAKO MENPEKOTASUNA (LEHENTASUNEZKO ERLAZIOA) DUTE. ZER ESAN NAHI DU HONEK?

- a) Ondorengo ataza hasi aurretik aurreko ataza bukatua egon behar duela.
- b) Ondorengo ataza hasi aurretik aurreko ataza hasita egon behar duela.
- c) Ondorengo ataza bukatu aurretik aurreko atazak bukatua egon behar duela.
- d) Ondorengo ataza bukatu aurretik aurreko atazak hasia egon behar duela.

8.- ADMINISTRAZIOKO EDO ZIGOR-ARLOKO ARAU-HAUSTEEI BURUZKO NORBERAREN DATUAK GORDETZEN DITUZTEN FITXATEGI AUTOMATIZATUETAN ZEIN MAILATAKO SEGURTASUN-NEURRIAK HARTU BEHAR DIRA?

- a) Oinarrizkoa.
- b) Ertaina.
- c) Goi-mailakoa.
- d) Ez dago segurtasun-neurrien beharrik.

9.- PRODUKTU INFORMATIKOA ERABILIKO DUEN PERTSONA EDO ERAKUNDEA:

- a) Aplikazioaren kodeketaren arduraduna da.
- b) Garatuko den produktuaren diseinuan ez du parte hartuko.
- c) Proiektua informatikoa denean ez da proiektu honen partehartzaileetako bat izango.
- d) Proiektu informatiko baten gako-partehartzaileetako bat da.

10.- METRICA 3an KONFIGURAZIOA (CG) KUDEATZEA...

- a) Hardware-gaia da.
- b) Fase bat da.
- c) Interfaze bat da.
- d) Erabiltzaileak definitu behar duen zerbait da.

11.- UML-AN, AKTORE ETA ERABILPEN-KASU (USE CASE) BATEN ARTEKO ELKARTEAK ZER ADIERAZTEN DU?

- a) Aktoreak erabilpen-kasua aldatzen duela.
- b) Erabilpen-kasuak aktorea barne duela.
- c) Erabilpen-kasua aktorearena dela.
- d) Bien arteko komunikazioa dagoela.

12.- JBUILDER HONAKO HAU DA:

- a) Objektuetara bideratutako lengoiaia bat.
- b) Objektuetara bideratutako metodologia bat.
- c) Objektuetara bideratutako ikusizko garapen-ingurune bat.
- d) Objektuetara bideratutako garapenean euskarria ematen duen CASE tresna bat.

- 13.- E-MAIL-EKO SOFTWAREAK ALBOKO DATUAK (Multimediakoak barne) NOLA ELKARTRUKATU BEHAR DITUEN DEFINITZEN DUEN ARAUA**
- a) SMTP.
 - b) MIME.
 - c) IMAP.
 - d) POSTNET.
- 14.- LOPD DELAKOAREN ARABERA, IZAERA PERTSONALEKO DATUAK ESKATZEN ZAIZKION UKITURIKOARI, ZEHAZKI ETA NAHASKETARIK GABE EMAN BEHAR ZAIO HAINBAT GAUZAREN BERRI. ONDOKO GAUZETATIK ZEIN EZ DA HORIETAKO BAT?**
- a) Datuak gordeko diren leku zehatza eta arrotzen atzipena saihesteko ezarriko diren segurtasun-mekanismoak.
 - b) Planteatutako galderak erantzuteko beharra edo aukera.
 - c) Tratamenduaren arduradunaren nortasuna eta helbidea, edo bere ordezkariarena, halakorik badago.
 - d) Datu hauek jasotzeko helburua eta informazio honen hartzaileak.
- 15.- LOPD DELAKOAREN ARABERA, TRATAMENDUAREN ARDURADUNAK UKITURIKOAREN ZUZENKETA EDO EZEREZTAPEN-ESKUBIDEA ERABILGARRI BIHURTZEKO DUEN EPEA ZENBAT EGUNEKOA DA?**
- a) 10 egunekoa.
 - b) 15 egunekoa.
 - c) 20 egunekoa.
 - d) Hilabete batekoa.
- 16.- METRICA 3AREN ARABERA, (IAS) SISTEMA EZARTZEA ETA ONARTZEA ZEIN PROZESUREN BARRUAN DAGO?**
- a) Informazio-sistemen plangintzan.
 - b) Informazio-sistemen garapenean.
 - c) Informazio-sistemen mantenimenduan.
 - d) Informazio-sistemen programazioan.
- 17.- GERTAGARRIEN PLAN BAT DISEINERATZERAKOAN HONETAN OINARRITZEN DIREN METODORIK DAUDE:**
- a) Zenbatasunezko metodoak eta nolakotasunezko metodoak.
 - b) Zenbatasunezko metodo absolutuak eta zenbatasunezko erlatiboak.
 - c) Arriskuen analisisa (risk analysis) eta negozioan eragina duena (business impact).
 - d) Nolakotasunezko metodo objektiboak eta nolakotasunezko subjektiboak.

18.- ZERTARAKO ERABILTZEN DIRA ZINTA MAGNETIKOKO GAILUAK MIKROINFORMATIKAN?

- a) Fitxategi sekuentzialak gordetzeko.
- b) Segurtasun-kopiak egiteko (backup).
- c) Orrikapen-sistamarako (alegiatzko memoria).
- d) Inpresio diferiturako (spooling).

19.- ERABILTZAILERAK INTERAKTIBOEN, ZER MURRIZTEN ZAIE?

- a) Diskoaren erabilera.
- b) Taulen tamainak.
- c) Sistamarako dei-kopurua.
- d) CPUa erabiltzen duten denbora.

20.- PROZESU BATEN INGURUNEAK, ZER DU?

- a) Sarrera/irteerako gailu eta fitxategien atzipen-baimenak.
- b) Eten-taula.
- c) Cache memorian gordetako balioak.
- d) CPUaren erregistroen balioak.

21.- XML DA:

- a) Internet aplikazioetarako komunikazio-estandar bat
- b) Marka-lengoaiak definitzeko gramatika bat
- c) Internetarako programazio-lengoia bat
- d) Merkataritza elektronikoaren aplikazio bat

22.- OSI MAILA GUZTIAK INPLEMENTATZEN DUTEN SARE-GAILUEK ZER IZEN HARTZEN DUTE?

- a) Bideragailu edo Router.
- b) Pasbide edo Gateway.
- c) Zubi edo Bridge.
- d) Brouter.

23.- PROIEKTU INFORMATIKOEN BIZI-ZIKLO KLASIKOAN, ONDORENGOETATIK ZEIN DA SOFTWAREAREN ESKAKIZUN-ANALISIAREN HELBURUAREN DESKRIBAPEN HOBEA?

- a) Informazio-sistemako elementu guztien eskakizunak finkatzea.
- b) Eraiki beharreko programen izaera eta eskakizunak ulertzea.
- c) Arkitektura, sarrera, irteera eta datu-egitura inplikatuak finkatzea.
- d) Sistemak, irteeretako definitutako sarrerak ematen zaizkionean, espero diren irteerak ematen dituela ziurtatzea.

24.- PROIEKTU INFORMATIKOEN BIZI-ZIKLO KLASIKOAN, ONDORENGOETATIK ZEIN DA SOFTWARE-KODEKETAK DUEN HELBURUAREN DESKRIBAPEN HOBEA?

- a) Informazio-sistemako elementu guztien eskakizunak finkatzea.
- b) Eraiki beharreko programen izaera eta eskakizunak ulertzea.
- c) Arkitektura, sarrera, irteera eta datu-egitura inplikatuak finkatu.
- d) Aurreko hiru erantzunak oker daude.

25.- HURRENGO PROZESUETATIK ZEIN EZ DAGOKIO METRICA 3AREN EGITURA NAGUSIARI?

- a) Informazio-sistemen definizioa.
- b) Informazio-sistemen plangintza.
- c) Informazio-sistemen garapena.
- d) Informazio-sistemen mantenimendua.

26.- APLIKAZIO BATEN GARAPENA HELBURUTZAT DUEN PROIEKTU INFORMATIKO KONKRETU BATEK "ANALISI" FASEA DU. ZEIN DA FASE HONEN HELBURU NAGUSIA?

- a) Erabiltzaileak ulertu eta berrikusi dezakeen lengoia erabiliz, erabiltzaileak behar duena zehazki deskribatzea.
- b) Aplikazioak erabiliko dituen kanpo-datuen egiturak deskribatu.
- c) Soluzioaren arkitektura eta beste sistemekiko eta kanpoaldearekiko interfazeak deskribatzea.
- d) Espezifikazio formaleko lengoia matematikoa erabiliz, aplikazioak egin behar duena deskribatu.

27.- BISTAK EZ DIRA MEKANISMO EGOKIA:

- a) Oinarri-taulen gaineko eguneraketak azkartzeko
- b) Datuak ezkutatzeko
- c) Eskema kontzeptualaren berregituraketa ezkutatzeko
- d) Taula desberdinetan banatutako datuen atzipena errazteko

28.- DATU-MANEIATZE LENGOSIAREN SENTENTZIAK HARTURIK, SQL DINAMIKOAK AHALBIDETZEN DU:

- a) Sententzia horiek egikaritzea, beren deskribapen zehatza egikaritzapen-unera arte ezaguna ez izan arren
- b) Sententzia horiek optimizatzea, bertan azaltzen diren taulen gainean indize berri bat definitzen bada
- c) Erabiltzaileak sententzia horiek egikaritzeko behar diren baimenak dituela egiaztatzea
- d) Sententzia horiek egikaritzea, datu berdinak atzitzen ari diren beste transakzio batzuk egon arren

29.- ORACLE-K EGIAZTATZE-PUNTU ("CHECKPOINT") BAT BURUTZEN DU:

- a) Berregin motako erregistroen konmutazioa, trukaketa egiten denean
- b) Blokeaketa bat gertatzen denean
- c) Transakzio batek INSERT, UPDATE edo DELETE burutzen duenean
- d) Datu-basean errore bat gertatzen denean

30.- MAGERIT-I JARRAIKI, ALDEZ AURRETIK ZEHAZTURIKO ETA BEREAK DITUEN AKTIBOEZ OSATURIKO SEGURTASUN-DOMEINU BATEAN...

- a) Urrakortasuna, Aktiboaren gaineko erasoaren ondorioaren neurria da.
- b) Inpaktua, Aktibo baten eta Mehatxu baten arteko erlazioaren propietatea edo atributua da.
- c) Arriskua, Domeinuaren segurtasun-egoeraren Mailaren adierazleetako bat da.
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez.

31.- OBJEKTUA ZEINAREN GAINEAN "EXECUTE" BAIMENA DEFINITZEN DEN:

- a) Bista
- b) Oinarri-taula
- c) Disparatzailea ("Trigger"-a)
- d) Biltegirotutako prozedura ("stored procedure")

32.- ORACLE-N, PAKETE ("PACKAGE") BATEK DAUZKA:

- a) Batera erabiltzen diren taula batzuk
- b) Biltegirotutako prozedura batzuk
- c) Taula bat eta bere gainean definituriko indizeak
- d) Taula bat eta bere gainean definituriko baimenak

33.- "AUDITING" JARDUERAREN OINARRIA DA:

- a) Erabiltzaileek dituzten, eta datu-baseak bete beharko dituen, informazio-beharrak biltzea
- b) Datu-basean zein erabiltzailek zein baimen dituen zehaztea
- c) Jarraipena egitea eta datu-basearen gainean burutzen diren ekintzak erregistratzea
- d) Datu-basearen erabiltzaile potentzialak identifikatzea

34.- NOIZ BERRABIARAZI BEHAR DA UNIX SISTEMA BAT?

- a) Kontrolatzaile berri bat instalatu baino lehen.
- b) Erabiltzaile berri bat sortu ondoren.
- c) Aste bat baino gehiago etenik gabe dabilenean.
- d) Kernel berri bat instalatzeko.

35.- ZER DA “MAC” HELBIDE BAT ETHERNET EDO TOKEN-RING SAREETAN?

- a) Helbide logiko bat ordenadorea identifikatzeko.
- b) Helbide fisiko bat ordenadorea abiarazterakoan dinamikoki ausaz lortutakoa.
- c) Helbide fisiko bat txartelaren egileak emandakoa.
- d) Ordenadoreari dagokion domeinuaren helbidea.

36.- DENNINGEK, ZERI DEITZEN DIO “LAN-MULTZO” EDO “WORKING SET”?

- a) Prozesu baten inguruneari.
- b) Denbora-tarte batean erabiltzen den prozesu baten orriei.
- c) Denbora-tarte batean prozesu batek erabiltzen dituen fitxategiei.
- d) Sistema-deiekin interfazea egiten duten liburutegiko funtzioei.

37.- SARE LOKALEKO DEFINIZIOAK, HAUETATIK ZEIN JASOTZEN DU?

- a) Sareko sistema eragileak.
- b) Garraio protokoloak.
- c) Tramen tamaina handien ezarpena.
- d) Euskarri fisiko eta transmisio-sarbide protokoloak.

38.- NOLA DEITZEN DA OSIN, BI MAILA BERDINEN ARTEKO ENTITATEEN KOMUNIKAZIOA?

- a) Zerbitzu.
- b) Interfaze.
- c) Protokolo.
- d) Primitibo.

39.- ZENBAT PRIMITIBO DITUZTE OSI ZERBITZU KONFIRMATUAK?

- a) Bi primitibo.
- b) Hiru primitibo.
- c) Lau primitibo.
- d) Bost primitibo.

40.- BESTE AUDITOREEK BEZALA, AUDITORE INFORMATIKOAK ERE PRINTZPIO DEONTOLOGIKO BATZUK JARRAITU BEHAR DITU. ZER PRINTZIPIORI DAGOKIO “AUDITOREAK BAI AUDITORETZA JASATEN DUENAREKIKO BAI HIRUGARREN PERTSONEKIKO ERLAZIOETAN DUINTASUN PROFESIONAL ETA TRATU PERTSONAL ZUZENKO ARAUEN ARABERA ARITU BEHAR DU”?

- a) Kalitate-printzipioari.
- b) Gaitasun-printzipioari.
- c) Ardura-printzipioari.
- d) Portaera profesionalaren printzipioari.

41.- PROZESU BATEN ORRI-TAULA...

- a) Prozesuaren kodea gordetzeko erabiltzen da.
- b) Programa baten aldagaien artean dago.
- c) Alegiazko helbideak helbide fisikoekin lotzen ditu.
- d) Prozesuen arten konpartitu daiteke.

42.- DIJKSTRA SEMAFOROAK, ZERTARAKO ERABIL DAITEZKE?

- a) CPUaren erabilera kudeatzeko.
- b) Ume prozesuak sortzeko prozesu anitzeko sistema batean.
- c) Konpartitutako baliabide baten erabilera eksklusiboa bermatzeko.
- d) Orri-faltak detektatzeko.

43.- ALEGIAZKO MEMORIAREN KONTZEPTUA, ZEREKIN LOTUTA DAGO?

- a) Konputagailuen arkitekturekin, hardwarea bakarrik da.
- b) Sistema eragilearekin, softwarea bakarrik da.
- c) Sistema eragileko hardware eta softwarearekin, biak batera.
- d) Erabili den programazio-lengoiarekin.

44.- ORRI BATEK HUTS EGITEN DUENEAN...

- a) Prozesua blokeatu egiten da eta CPUa askatzen du, orria kargatu arte.
- b) Sistema eragileak eragilearen kontsolarara mezu bat bidaltzen du.
- c) Prozesuak CPUa erabiltzen du orria kargatu arte.
- d) Memoriaren gestoreak gertaera hau fitxategi batean gordetzen du.

45.- ZER SOFTWAREK LAGUNTZEN DU ESKANEATUTAKO DOKUMENTUAK TESTU FORMATURA ITZULTZEN?

- a) OCR Softwareak.
- b) RCS Softwareak.
- c) SCR Softwareak.
- d) SDR Softwareak.

46.- ZER ESAN NAHI DU USB-EK?

- a) Bus Serie Universal.
- b) Bus de Servicios Universal.
- c) Servicios de Base Universal.
- d) Universal Serie de Base.

47.- ZERTARAKO BALIO DUTE TEILAKATUTAKO ORRI-ESTILOEK?

- a) HTML Diseinuaren zati diren formatuak definitzen laguntzen dute.
- b) Estilo jakin bat jarraituz Word dokumentuak sortzeko.
- c) XML dokumentuen formatua definitzeko.
- d) Proiektu baten parte diren dokumentu guztietan erabili beharreko formatuak definitzeko.

48.- MAGERIT METODOLOGIAREN GERTAERA-AZPIEREDUAREN BISTA DINAMIKOAREN ARABERA, SALBAGOARDIAK KUDEATZEAN HURRENGOETATIK ZEIN EZ DA KONTUAN HARTZEN?

- a) Mehatxua gauzatzearen aurreko salbagoardiak (kontzientziaztekoak, disuasiokoak eta prebentziokoak).
- b) Mehatxua gauzatu bitartean eragiten duten salbagoardiak (konkurrenteak).
- c) Mehatxuaren ondoriozko salbagoardiak (zuzentzekoak eta berreskuratzekoak).
- d) Zirkunstantzien arabera, aurretik edo ondotik eragiten duten salbagoardiak (detekziokoak).

49.- JDBC KONTROLATZAILEA:

- a) JDBCekin egin daitezkeen funtzioak atzitzen dituen interfazea da
- b) Kontrolatzaile zehatz bati deia egiteko ardura duen prozesua da
- c) JAVA bezero-aplikazio batean egin den deia Datu-Baseen Kudeaketa-Sistemak ulertuko duen SQL sententzia batera itzultzeko ardura duen modulua da
- d) JAVA lengoaia erabiltzerakoan Datu-Baseen Kudeaketa-Sistemak behar duen modulua da

50.- ARRISKUAK AZTERTU ETA KUDEATU BEHAR BADIRA...

- a) Aktibo bakoitzeko, aztertu behar da ea mehatxua eraso bihurtzen den, aktibo-mehatxu erlazioak berezkoa duen urrakortasuna (vulnerabilidad) dela-kausa, eta Aktiboan jasandako Inpaktua edo kaltea baloratuko da.
- b) Salbagoardiak aplikatzeagatik kalkulatzeko den Arrisku orokorraren murrizketa kendu ondoren, Hondar-arriskua txikiagoa bada, onar daitezkeen Arrisku-atalasea baino, defentsa-helburua betetzat jo daiteke.
- c) Salbagoardiak sartzeko Arriskuaren gorabeheran dago (Aktiboaren gaineko Inpaktua, eta Aktiboak mehatxuarekiko duen berehalako urrakortasuna), eta baita ere, geroagoko aktibo eta mehatxu-moten gorabeheran.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

51.- OSI EREDUAN, MAILA BATEK BERE AZPIAN DUEN MAILA ZERBITZU-HORNITZAILE BEZALA IKUSTEN DU. ESALDI HAUETATIK ZEIN DA EGIA?

- a) Zerbitzu guztiak goiko mailaren eskaerengatik sortzen dira.
- b) Goi mailako bietatik edozeinek eska dezake zerbitzu bat.
- c) Hornitzaileak sortutako zerbitzuak daude, bere barneko egoeraren erantzun bezala sortutakoak.
- d) Zerbitzu guztiak hornitzaileak hasten ditu.

52.- DATUAK BABESEKO LEGE ORGANIKOAREN ARABERA (LOPD) (LEHENAGO LORTAD), DATU-BABESEKO AGENTZIAREN EGITURAN HURRENGO ORGANO HAU EK DAUDE:

- a) Datu Babeseko Agentziako zuzendaria, Aholku Kontseilua eta Datu Ikuskaritza.
- b) Datu Babeseko Agentziako zuzendaria, Datu Babeseko Erregistro Orokorra, Aholku Kontseilua eta Datu Ikuskaritza.
- c) Datu Babeseko Agentziako zuzendaria, Idazkaritza Nagusia, Aholku Kontseilua, Datu Ikuskaritza eta Datu Babeseko Erregistro Orokorra.
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez.

53.- ZER ESKAINTZEN DU RTSE (RELIABLE TRANSFER SERVICE ELEMENT) OSI-REN ZERBITZU-ELEMENTUAK?

- a) "Prozesu-elkarketen" elkartruke fidagarria
- b) "SPDU"-n elkartruke fidagarria.
- c) "Sinkronizazio-puntu"-an elkartruke fidagarria.
- d) "ASN.1"-eko egituren elkartruke fidagarria.

54.- BEZERO/ZERBITZARIA ARKITEKTURAN, FUNTZIO HAUETATIK ZEIN EZ DAGOKIO BEZEROARI?:

- a) Erabiltzaile-interfazea kudeatzea
- b) Erabiltzaileak sartuko datuak onartzea
- c) Atzipen konkurrentearen kontrola ematea
- d) Aplikazioaren logika prozesatzea

55.- ORRI ZAHARRENA KENTZEAREN ESTRATEGIAK, ZER IZEN HARTZEN DU?

- a) LRU.
- b) NFU.
- c) FIFO.
- d) Erlojuaren algoritmoa.

56.- OBJEKTUETARA BIDERATUTAKO GARAPENETAN, HERENTZIA ERREPIKATUA:

- a) Klase bat beste baten ondorengoa denean bide bi edo gehiago erabiliz sortzen da.
- b) Klasearen ezaugarri batzuk ez dira atzigarriak bezeroentzat.
- c) Kontrol-egitura bat da ekintzen sekuentzia aurreordenatu bat deskribatzen duena.
- d) Baldintza formal bat da propietate semantikoak deskribatzen dituena.

57.- VB-EN JET KONTROL BATEK ONDORENGOA UZTEN DIGU KUDEATZEN:

- a) MDB(Access) formatoan dauden datu-baseak bakarrik.
- b) ISAM(Dbase) formatoan dauden datu-baseak bakarrik
- c) Besteen artean, ODBC onartzen duten datu-baseak.
- d) Jet motorea ez da atzigarri Visual Basic-etik.

58.- ZEIN DA TELNET ZERBITZARIARI ERRESERBATUTAKO PORTU-ZENBAKIA?

- a) 20. portua.
- b) 21. portua.
- c) 23. portua.
- d) 25. portua.

59.- METRICA 3AREN ARABERA, ZEIN DA PROIEKTU-BURUAREN EGINKIZUN NAGUSIA?

- a) Giza taldeak koordinatu eta zuzentzea.
- b) Aditu moduan ezagutzen dituen gaiiei buruzko aholkuak ematea.
- c) Informazio-sistema deskribatzen duten eskakizunen katalogo xehea egitea.
- d) Kodea egitea.

60.- ZER KOMANDO ERABILI BEHAR DUGU FITXATEGI BAT BAINO GEHIAGO EKARTZEKO FTP ZERBITZARI BATETIK AGINDU BAKARRA EMANDA?

- a) Ezin da, banaka eskatu behar dira "get" komandoarekin.
- b) Direktorio oso bat eska daiteke "getdir" komandoarekin.
- c) "mget" komandoa erabil daiteke nahi ditugun fitxategien zerrenda emanda.
- d) Aurretik biltzen baditugu "tar" motako fitxategi batean egin daitekeen era bakarra da.

61.- ZER OINARRIZKO ELEMENTU DAGO SUHESI GUZTIETAN?

- a) "proxy server".
- b) "sniffer" edo pakete-monitore bat
- c) Zerbitzu sentikorrek gaitu gabe dituen UNIX ekipo bat.
- d) Bideragailu bat.

62.- PROIEKTU INFOMATIKO BATEAN, ZERTARAKO ERABILTZEN DIRA FUNTZIO-PUNTUAK?

- a) Sistema bateko modulu funtzionalen arteko akoplamendua neurtzeko.
- b) Sistema baten tamainaren adierazle bezala.
- c) Erabiltzailearekin egiten diren elkarrizketak gidatzeko.
- d) Neurtu diren atazetan arrisku-prebentzioen zerrenda bezala.

63.- ONDORENGOETATIK ZEIN MOMENTUTAN DA NEKEZAGO SISTEMA INFORMATIKO BATEAN ALDAKETA BAT EGITEA?

- a) Eskakizunen analisia egiten den bitartean.
- b) Sistemaren diseinua egiten den bitartean.
- c) Sistemaren parte den softwarearen kodeketa egiten den bitartean.
- d) Mantentze-fasean.

64.- IZAERA PERTSONALEKO DATUAK DAUZKATEN FITXATEGI AUTOMATIZATUEN SEGURTASUNEO NEURRI TEKNIKOEN ARAUTEGIAREN ARABERA (994/1999 ERREGE-DEKRETUAN BARNE HARTUA), 17. ARTIKULUA, AUDITORETZA-TXOSTENAK AZTERTU BEHAR DITU:

- a) Eskumena duen segurtasun-arduradunak.
- b) Sistemaren administratzaileak.
- c) Fitxategiaren arduradunak.
- d) Auditoretzen arduradunak.

65.- HAUETATIK, ZEIN DA USB PORTUEN EZAUGARRI BAT?

- a) Bere bederatzi pineko konektore txikia.
- b) Centronics portu paraleloko bateragarritasuna.
- c) Serieko portuko bateragarritasuna.
- d) Berotan konektatzeko aukera, ordenadore nagusia piztuta dagoelarik.

66.- ONDORENGOETATIK ZEIN DA APLIKAZIO INFORMATIKO BATEN USTIAKUNTZAKO AKTIBITATE ARRUNT BATEN ADIBIDEA?

- a) Aplikazioaren erabiltzailearen eskuliburua idatzi.
- b) Pertsonekin elkarrekintzarik ez duen aplikazio baten gaueko egikaritzea prestatu.
- c) Aplikazioa eurotara egokitu.
- d) Aplikaziorako erabiltzailearen eskakizunak dokumentatu.

67.- PROIEKTUKO "BIDE KRITIKOAK" ZER ADIERAZTEN DU?

- a) Proiektuko atazen arteko menpekotasunak, grafikoki.
- b) Denbora unitateko hasi eta bukatu diren atazak.
- c) Denbora unitateko egin behar den ahalegin-kopurua.
- d) Atzeratzeko marjinarik ez duten proiektuko atazak.

68.- ZER NEURRI ERABILTZEN DA PROZESADOREEN ERAGINKORTASUNA ADIERAZTEKO?

- a) Sistemako busaren frekuentzia Mhertzetan.
- b) Prozesadore-erlojuaren frekuentzia MHertzetan.
- c) Milioi agindu segundoko edo MIPS.
- d) SPEC balioak.

69.- ONDOKO ELEMENTUETATIK ZEIN EZ DA AGERTZEN SEGURTASUN KOPIEN PLAN BATEAN?

- a) Segurtasun-kopien zikloa eta burutze-maiztasuna.
- b) Biltegitutako datu-mota eta aplikazioak.
- c) Segurtasun-kopiaren babesia.
- d) Segurtasun-kopien ziurtapena.

70.- NOLA DERITZO ERAKUNDE BATEN INFORMAZIOA ETA EKIPOEN ERABILPENA, BABESA ETA BANAKETA ARAUTZEN DITUEN ERREGELA ETA PRAKTIKEN MULTZOARI:

- a) Segurtasun-politikak.
- b) Segurtasun-mekanismoak.
- c) Segurtasun-ereduak.
- d) Segurtasun-gailuak.

71.- SEGURTASUN-KOPIA DIFERENTZIAL BATEAN:

- a) Burututako azken segurtasun-kopia osoa egin zenetik sortutako edo aldatutako fitxategien kopia egiten da.
- b) Burututako azken segurtasun-kopia, osoa edo jarraikakoa, egin zenetik sortutako edo aldatutako fitxategien kopia egiten da.
- c) Burututako azken segurtasun-kopia, osoa edo diferentziala, egin zenetik sortutako edo aldatutako fitxategien kopia egiten da.
- d) Burututako azken jarraikako segurtasun-kopia egin zenetik sortutako edo aldatutako fitxategien kopia egiten da.

72.- BEHE-MAILAKO DATU-MANEIATZEKO LENGOAIAK:

- a) Era independentean erabil daitezke
- b) Eragiketa bakar batekin beti erregistro asko berreskuratzen dituzte
- c) Helburu orokorreko programazio-lengoaia batean barneratuta egon behar dute
- d) Objektuei zuzendutakoak ere deitzen zaie

73.- BERE GAKO-ATRIBUTUA EZ DUEN ENTITATE-MOTARI ESATEN ZAIO ENTITATE-MOTA:

- a) Eratorria
- b) Partziala
- c) Ahula
- d) Ezdefinitua

74.- DATUAK BABESTEKO AGENTZIA LOPDen (LEHENGO LORTAD) EZARRITAKOAREN ARABERA SORTU DA, ETA ESTATUTUEKIN BAT, AGENTZIAK AHAL HAUEK DITU:

- a) Arautzeko eta izapidetzeko ahala.
- b) Ikuskatzeko eta zehatzeko ahala.
- c) Geldiarazteko ahala.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

75.- DATU-BASEEN DISEINUAREN PROZESUKO LEHEN FASEAREN, HOTS, ESKAKIZUNEN BILKETA ETA ANALISI FASEAREN, HELBURUA DA HONAKOA(K) IDENTIFIKATU ETA ANALIZATZEA:

- a) Datu-basearentzat proposatutako erabilpena
- b) Datu-baseen kudeaketa-sistema desberdinen ezaugarriak
- c) Erabiliko den datu-ereduaren ezaugarriak
- d) Datu-basearen diseinurako tresnen ezaugarriak

76.- KONKURRENTZIAREN KONTROLERAKO DATU-BASE ZENTRALIZATUETAN ERABILITAKO TEKNIKA EZKORREK:

- a) Transakzioen teilakatzeari ez diote inoiz oztoporik jartzen
- b) Transakzioen teilakatzeari aurretiko murrizpen batzuk ezartzen dizkiote
- c) Transakzioen teilakatzeari ondorengoko murrizpen batzuk ezartzen dizkiote
- d) Transakzioen segidako egikaritzapena behartzen dute

77.- WEB MUNDUAN, INGURUNeko ALDAGAIK HONAKO HAUEK DIRA:

- a) CGI bateko irteera adierazteko bidea
- b) Bezeroaren fitxategietarako erreferentziak
- c) Zerbitzariaren fitxategietarako erreferentziak
- d) CGI erazagupenean definitutako parametroak

78.- DATU-BASEEN ATZIPENERAKO ASP ORRIEK, ZER OBJEKTU-BILDUMA ERABILTZEN DITUZTE?

- a) DAO.
- b) ADO.
- c) REQUEST.
- d) RDO.

79.- METRICA 3AN KALITATEZKO INTERFAZEAREN BEREZKO JARDUERAK NON EGITEN DIRA?

- a) Proiektuen kudeaketan (GP).
- b) Segurtasunean (SEG).
- c) Kalitatea bermatzean (CAL).
- d) Konfigurazioaren kudeaketan.

80.- JAVAREN STRING MOTA

- a) Char bezalako oinarrizko mota bat da.
- b) Klase bat da eta ez oinarrizko mota bat.
- c) Interfaze bat da eta ez jatorrizko mota bat.
- d) Objektu-mota bat da.

81.- DATU-FLUXU DIAGRAMA BATEAN KANPO-ENTITATE BATEK ONDOKOA ZEHAZTEN DU:

- a) Izaki arrotz bat, aplikazioarekiko informazioa jaso eta bidaltzen duena.
- b) Izaki arrotz bat, aplikazioarekiko informazioa bidaltzen duena soilik.
- c) Elkarrizketa logiko baten entitatea.
- d) Betekizunen elkarrizketa bateko partaide bat.

82.- ETHERNET SARE BATEAN DAUDEN BI ESTAZIOEK BATERA TRANSMITITZEN DUTENEAN...

- a) Talka gertatzen da eta lehenak ez du gehiago transmititzen.
- b) Talka gertatzen da eta biek gelditzen dute transmisioa.
- c) Talka gertatzen da, baina irteerako buferra hustu arte transmititzen jarraitzen dute.
- d) Talka gertatzen da eta estazio guztiek itxarotzen dute gutxienez segundo bat hurrengo transmisioa saiatu baino lehen.

83.- ZISDKO ATZIPEN NAGUSIAK, ZER DU?

- a) 30 B kanal eta D kanal bat.
- b) Bi B kanal eta D kanal bat.
- c) 16 B kanal eta 2 D kanalak.
- d) 2 B kanal eta 2 D kanalak.

84.- ZEIN DA ATM SARE BATEN INFORMAZIO-UNITATEA?

- a) Gelaska.
- b) Trama.
- c) Datagrama.
- d) Paketea.

- 85.- INFORMATIKAREN KONTSEILU NAGUSIAK LEHENGO ANTZEKO PROIEKTUAK IZAN DITU GOGOAN MAGERIT EGITERAKOAN. HURRENGOETAKO ZEIN EZ DA ERABILI ERREFERENTZIATZAT?**
- a) Informazio Teknologien Segurtasuna Ebaluatzeko Europako ITSEC Irizpideak, 1990. urtean aurkeztuak; eta EE 1995/04/07 Gomendia.
 - b) IS 7498-2 Nazioarteko Araua, OSIrako Erreferentziako Oinarrizko Ereduaren segurtasun arkitekturari buruzkoa —Informatikako Sistema Irekien Interkonexioa— 1989koa.
 - c) Arriskuak Aztertze Eredua, Segurtasuneko Europako Proiektuan sortua — INFOSEC S2014—
 - d) Mundu-mailako Ebaluazio-irizpideak «Common Criteria (CC) for Information Technology Security Evaluation», 1997tik aurrera argitaratuak.
- 86.- NON ERABILTZEN DA "HDLC" PROTOKOLO FAMILIA?**
- a) Komunikazio asinkronoak, puntuz puntuko loturetan.
 - b) Komunikazio sinkronoak, puntuz puntuko loturetan.
 - c) Komunikazio asinkronoak, sareen arteko loturetan.
 - d) Komunikazio sinkronoak, sareen arteko loturetan.
- 87.- "ROLLBACK" SEGMENTUEK DAUZKATE:**
- a) Erabiltzaileen baimenen inguruko informazioa
 - b) Oraindik bukatu EZ diren transakzioek aldatu dituzten atributuen balio zaharrak
 - c) Transakzioen arteko menpekotasunen informazioa
 - d) Beren aldaketak oraindik bigarren mailako memorian gordeak izan EZ diren transakzioek aldatu dituzten atributuen balio zaharrak
- 88.- METRICA 3AREN GARAPEN-PROZESUAK HURRENGO GARAPEN HAU/HAUEK HARTZEN DU/DITU BEREGAIN:**
- a) Garapen-mota biak: egituratua eta objekturantzkoa.
 - b) Garapen egituratua bakarrik.
 - c) Objekturantzko garapena bakarrik.
 - d) Ez bata eta ez bestea.
- 89.- "DATAMART" BAT DA:**
- a) "GROUP BY" klausula duten galderen exekuzioa azkartzearen bereziki diseinatutako gailu fisiko bat
 - b) Katalogoaren informazioa gordetzeko DBKS-k erabiltzen duen bigarren mailako memoriaren leku bat
 - c) Datu-basearen kudeatzaileari murriztutako informazioa gordetzeko DBKS-k erabiltzen duen bigarren mailako memoriaren leku bat
 - d) Enpresaren barneko sail edo funtzio espezifiko bati zerbitzua ematen dion datu-biltegi ("datawarehouse") baten azpimultzoa

90.- ZER TCP/IP PROTOKOLO DAGOKIO SARE-MAILARI?

- a) TCP.
- b) IP.
- c) UDP.
- d) FTP.

91.- ZERTAN DATZA DISKOAREN DESFRAGMENTAZIOA?

- a) Dauden partizioak ezabatzean.
- b) Dauden fitxategiak birkokatzen jarraian dauden sektore-taldeak ("cluster") erabil ditzaten.
- c) FAT taula eguneratzean, egon daitezkeen akatsak aurkituz.
- d) Akatsak daukaten sektoreak identifikatzean.

92.- OSI SESIO-PROTOKOLOAN, MAILA HONETAKO ENTITATEEK ZER ELKARTRUKATZEN DUTE?

- a) SSAP.
- b) TSAP.
- c) SPDU.
- d) PPDU.

93.- "ATZIPENEN KONTROLERAKO ZERRENDA", BABES-SISTEMA BAT DA. ZER DU?

- a) Erabiltzaileen zerrenda du, objektu bat atzitzeko dituen baimenekin.
- b) Objektu bat atzitzeko baimena duten prozesuen zerrenda.
- c) Prozesu batek erabil dezaken objektu-zerrenda eta baimendutako eragiketak.
- d) Taula bat, non sistema eragileak babestu behar dituen objektu guztiak eta baimenduta dauden prozesuak gordetzen dira.

94.- WINDOWS NT SISTEMA ERAGILEA, ZER PROZESADORETARAKO DISEINATU DA?

- a) INTELerako.
- b) CISCerako.
- c) RISCerako.
- d) Balioanitza da, RISC eta CISC prozesadoretarako.

95.- OSI-N, ZER GARRAIO-PROTOKOLO KLASEK ESKAINTZEN DUTE MULTIPLEXAZIO ZERBITZUA?

- a) 1. eta 3. Klaseak.
- b) 1. eta 4. Klaseak.
- c) 2. eta 3. Klaseak.
- d) Bakarrik 2. Klaseak.

96.- OSI-N, GARRAIO MAILAK "B" MOTAKO SARETZAT HARTZEN DUENA...

- a) Fidagarritzat jotzen da eta konexiora zuzendutako zerbitzuak eskaintzen ditu.
- b) Fidagarritasun gutxikotzat hartzen da eta konexiora zuzendutako zerbitzuak eskaintzen ditu.
- c) Fidagarritzat jotzen da eta konexiorik gabeko zerbitzuak eskaintzen ditu.
- d) Fidagarritasun gutxikotzat hartzen da eta konexiorik gabeko zerbitzuak eskaintzen ditu.

97.- HELBURU HAUETATIK, ZEINETAN EZ DU INONGO ERABILERARIK WEB PROXY BATEK?

- a) Segurtasuna: sare bateko barneko erabiltzaileei kanpoko zerbitzarien atzipena murrizteko.
- b) Abiadura: eskatutako web dokumentuen kopia mantentzeko, eta hurrengo eskaerei proxyan gorde den kopia entregatzeko.
- c) Beste aplikazioekiko pasabidea izateko: Makina berean CGIn bitartez.
- d) Kanpoko loturak askatzeko: eskaera erredundanteak ez ekartzeko.

98.- 994/1999 ERREGE-DEKRETUAN GEHITUTAKO ARAUTEGIAREN ARABERA, ERDI MAILAKO NEURRIEN SEGURTASUN-DOKUMENTUARI BURUZKO BAIETZAPEN HAUETATIK ZEIN EZ DA ZUZENA?

- a) Dokumentua eguneratua mantendu behar da eta garrantzizko aldaketak burutzerakoan berrikusi behar da.
- b) Dokumentuan segurtasun-arduradunaren edo arduradunen identifikazioa agertu behar du.
- c) Dokumentuak aldiko kontrolak ezarri behar ditu, jasotzen duena betetzen dela ziurtatzeko.
- d) Dokumentuak erabiltzaileentzako fitxategiaren erabiltze-txandak ezarri behar ditu.

99.- NORBERAREN DATUAK GORDETZEN DITUZTEN FITXATEGI AUTOMATIZATUEN SEGURTASUN-NEURRIEN ARAUDIAREN ARABERA (RMS), ZEIN DIRA OINARRIZKOTZAT JOTZEN DIREN SEGURTASUN-NEURRIAK?

- a) Segurtasun-dokumentua, segurtasun-arduraduna, bi urtez behingo auditoria, gorabeheren erregistroa, sarbide fisikoko kontrola, backup-a, datu errealik gabeko probak.
- b) Segurtasun-dokumentua, erabiltzaileen identifikazioa eta autentifikazioa, gorabeheren erregistroa, sarbide-kontrola, euskarrien kudeaketa, backup-a.
- c) Segurtasun-dokumentua, datuetarako sarbidea duten langileen eginkizunen araubidea, gorabeheren erregistroa, sarbide-kontrola, enkriptatzea.
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez.

100.- SEGURTASUN-ESKULIBURU BATEK:

- a) Kontratazio-prozeduretan gezurrak detektatzeko gailuak onartu behar ditu.
- b) Aurreikusitako mehatxuen aurreko jarduketa-prozedurak gehitu behar ditu.
- c) Segurtasun politikaren kontrako auditoretza-prozedurak gehitu behar ditu.
- d) Segurtasun-administratzaileari hezkuntza-planen eguneraketa ahaztutzea ahalbidetu behar dio.

ORDEZKO GALDERAK

101.- NON AURKITZEN DA FITXATEGI BATEN IZENA UNIXEN?

- a) Fitxategiaren aurreneko blokean.
- b) Katalogoko sarreran.
- c) l-nodoan.
- d) Fitxategi-jabeen taulan.

102.- ETHERNET SARE BATEAN, ORDENADOREAK GEHITZEAN ERAGINKORTASUNA JAISTEN DA, ZERGATIK IZAN DAITEKE?

- a) Eramaille seinalearen balioaren jaitsieragatik.
- b) Kablearen "bukatzaileak" ez dutelako seinalea behar den bezala zurgatzen.
- c) Talken kopurua handitzen delako.
- d) Lerroaren oihartzunak agertzen direlako kablearen inpedantziagatik.

103.- ZEIN DA ZUNTZ OPTIKOAREN ABANTAILA NAGUSIA?

- a) Ez duela zaratarik sortzen bere irradiazio elektromagnetikoaren eragin txikiagatik.
- b) Malgua dela.
- c) Metalezko kableak baino arinagoa dela.
- d) Seinalearen propagazio-abiadura kobreako kableetan baino askoz handiagoa dela.

104.- JATORRIZKO INTERNETEN, BIDERAGAILUEK, BERAIEI TAULAK DINAMIKOKI EGUNERATZEKO "DISTANTZIA-BEKTORE" PROTOKOLOAN OINARRITUTAKO PROTOKOLO BAT ERABILTZEN ZUTEN. NOLA DEITZEN ZAIO PROTOKOLO HORRI?

- a) RARP.
- b) OSPF.
- c) RIP.
- d) BGP.

105.- SQL-KO GRANT SENTENTZIAK

- a) Integritate-murrizpenak definitzea ahalbidetzen du
- b) Transakzioak sinkronizatzea ahalbidetzen du
- c) Erabiltzaileei baimenak ematea ahalbidetzen du
- d) Erabiltzaileei baimenak kentzea ahalbidetzen du

106.- PARTIZIOAK DITUEN DISKO BATEAN...

- a) Partizio bakarra atzigarri eduki dezakegu, partizio aktiboa deritzona.
- b) Gehienez bi partizio atzigarri eduki ditzakegu.
- c) Gehienez lau partizio atzigarri eduki ditzakegu.
- d) Partizio guztiak atzigarri eduki ditzakegu.

107.- CGI SCRIPT PROGRAMEI ESKER:

- a) Datu-baseen interfazeak sor daitezke
- b) Bezero-aplikazio baten errendimendua hobeto daiteke
- c) Web-etik, amaraunetik, datu-baseak atzi daitezke
- d) Urruneko datu-baseen konkurrentzia kontrola daiteke

108.- ZER ENPRESA PRIBATUARI ESLEITU ZITZAION 1992AN IZENEN ERRO ZERBITZARIEN KUDEAKETA INTERNETEN?

- a) NSI (Network Solution Inc.).
- b) BBN (Bolt, Beranek and Newman).
- c) SPRINT.
- d) ATT.

109.- SUPOSA DEZAGUN "HEGAZKIN_KONPAINIA" JAVA KLASEA NAHI DUGULA EDUKI HEGAZKIN ETA AKTIBO KLASEEN METODOAK JASOZ.

- a) Javan ezin da inola ere.
- b) Ahal da metodo guztiak inplementatzen badira HEGAZKIN_KONPAINIA klase barruan.
- c) HEGAZKIN-etik(klase bezala definitua) hereda daiteke eta AKTIBO-tik(interfaze bezala definitua) ezer inplementatu gabe.
- d) HEGAZKIN-etik(klase bezala definitua) hereda daiteke eta AKTIBO-tik(interfaze bezala definitua) baina AKTIBO klasearen metodoak inplementatuz.

110.- ZEIN HAMARRALDITAN GARATZEN DIRA 4BL-AK (4GL)?

- a) 60.
- b) 70.
- c) 80.
- d) 90.

BOLSAS DE TRABAJO 2003

A2 Informática

EXAMEN MODELO A

21/03/2003

1.- LA LEY ORGÁNICA DE PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL NO SERÁ DE APLICACIÓN A LOS FICHEROS QUE CONTENGAN:

- a) Datos relativos a la comisión de infracciones administrativas o penales.
- b) Datos utilizados exclusivamente para el ejercicio de actividades domésticas.
- c) Datos de ideología, religión o creencias.
- d) Datos de salud o vida sexual.

2.- EL SISTEMA OPERATIVO MANTIENE UNA TABLA DE MARCOS DE PAGINAS

- a) Por usuario.
- b) Por proceso.
- c) Por fichero.
- d) La tabla de marcos de páginas es única.

3.- SE DENOMINA "SHELL" DE UNIX

- a) Al proceso encargado de identificar al usuario.
- b) Al proceso que se encarga de atender al terminal.
- c) Al intérprete de comandos.
- d) Al sistema de contabilidad de cada usuario (accounting).

4.- LOS DISPOSITIVOS UTILIZADOS PARA LA INTERCONEXIÓN DE REDES TCP/IP SE DENOMINAN:

- a) Puentes.
- b) Conmutadores.
- c) Pasarelas.
- d) Encaminadores.

5.- EN UNA ESTRUCTURA JERÁRQUICA DE UNA PROGRAMACIÓN ORIENTADA A OBJETOS

- a) Existen tres posibles niveles donde puede estar situado un objeto: raíz, intermedios y terminales.
- b) Existen dos niveles donde puede estar situado un objeto: raíz y terminales.
- c) Todos los objetos se encuentran a un único nivel.
- d) En la orientación a objetos no existe jerarquía.

6.- LA "CALIDAD DE SERVICIO" QUE NOS PUEDE OFRECER UNA CONEXIÓN TCP/IP ACTUALMENTE CORRESPONDE A:

- a) Número mínimo de bytes transmitidos por segundo (throughput).
- b) Entrega de una corriente de datos, ordenada y sin errores.
- c) Retraso de tránsito acotado a un valor máximo.
- d) Variabilidad de los tiempos de tránsito acotada (jitter).

7.- DOS ACTIVIDADES O TAREAS TIENEN ENTRE SÍ UNA DEPENDENCIA (RELACIÓN DE PRECEDENCIA) DE TIPO "INICIO A INICIO". ESTO SIGNIFICA QUE:

- a) La tarea predecesora debe haber terminado antes de que comience la sucesora.
- b) La tarea predecesora debe haber comenzado antes de que comience la sucesora.
- c) La tarea predecesora debe haber terminado antes de que termine la sucesora.
- d) La tarea predecesora debe haber comenzado antes de que termine la sucesora.

8.- LOS FICHEROS AUTOMATIZADOS QUE CONTENGAN DATOS DE CARÁCTER PERSONAL RELATIVOS A LA COMISIÓN DE INFRACCIONES ADMINISTRATIVAS O PENALES DEBERÁN ADOPTAR LAS MEDIDAS DE SEGURIDAD DE NIVEL:

- a) Básico.
- b) Medio.
- c) Alto.
- d) No es necesario que adopten medidas de seguridad.

9.- LA PERSONA U ORGANIZACIÓN QUE UTILIZARÁ EL PRODUCTO DEL PROYECTO INFORMÁTICO:

